

DESPOTAK

Ez dakit despotarik ezagutu duzuen; despotaren batekin tratuan ibili behar izan duzuen, alegia. Ez pentsa zaila denik. Ugariak dira eta erraz aurkituko duzue baten bat administrazio publikoarekin harremanean bazabiltzate, batez ere. Despotaren profila hau izaten da maiz: karguan designazioz jarri dute, hau da, ez du inork botoen bidez aukeratu, baina botazioak irabazi dituenak izendatu du eta horregatik deitzen zaio bereari «konfiantzazko kargu»; baditu aurrekontu publikoaren milioi batzuk diru-laguntzetan partitzeko. Ez dakit zer pasatzen den, karguek pertsonak eraldatzen dituztela -botereak jendea usteltzen duela- ala despota dela kargu horietarako pertsona egokiena -ustela izatea dela boterera iristeko modu errazena-. Bietatik zerbait egongo da segurasko, baina emaitza berdina da: despotak ahaztu egiten du partitzen duen dirua publikoa dela, bere obligazioa dela dirua partitzea, eta partiketa administrazio publikoan *demokratikoki* egindako lege eta arauetara jarraiki egin behar duela. Guzti honen ordez, despotak «nik pagatzen dut, eta gauzak nik esan bezala egingo dira» esaten du lotsagabe. Eta jendeak burua makurtzen du, ze erremedio, «zintzoa izateagatik» despotak «oparituko dion» dirua beharrezkoa zaiolako.

Despota hauen arazoa larria da eta ez dauka konponbide errazik. Bereziki larria da ezinbestean diru publikoaren babesaren premia duten jardunetan dabilzan guztientzat, baina ez bakarrik hauentzat. Despoten jardunak demokraziaren oinarriak usteltzen ditu. Gobernu sistema baten demokratikotasuna kudeaketa despoten eskuetan ez uzteko dauzkan mekanismoek neurtzen dute, besteak beste.

Aberatsak dira gure administrazio publikoak. Despotismoa saihesteko dauzkaten mekanismoak, berriz, efikazia eskasekoak. Gure despotak ilustratuak balira sikiera! Zorionekoa, despotarekin tratatu beharrik ez duena. Gaisoa, ezinbestean despotari egunero burua makurtu behar diona. Duina, galtzekorik eduki arren despotari aurre egiten diona.